

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Teodoro Aranburu Otaegi*

*Usurbil,  
Gipuzkoa  
(1928)*

Aurkibidea



## Biografia



Usurbilgo Kale Nagusian jaio zen, bederatzi senideren artean laugarrena. Aita etxe hartakoa zen, eta ama Zegamakoa. Baserritik bizi ziren, eta aita udaletxeko langile ere izan zen. Teodoro 18 urterekin hasi zen lanean "Abrasivos" fabriketan, eta 21 urterekin soldadutzara joan zen. Hura bukatutakoan, Michelinen hasi zen lanean, eta han jardun zuen erretiroa hartu arte. Gaztetan soinu-jotzailea izan zen, eta motorra hartuta hainbat erromeriatara joaten zen musika jotzera. Kontu hauek guztiak kontatu zizkigunean, bere jaioterrian bizi zen Mari Karmen Ayerbe emaztearekin.

## Zintak

### USU-022

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data:** 2010-08-10
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

### USU-023

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-10
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider

### USU-024

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-10
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

# Pasarteak

## 1. Amaren familian 17 anai-arreba

- **Erref:** USU-022/002
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak

### Laburpena:

<p>Amaren familian, 17 senide ziren eta, jaunartzea egindakoan,&nbsp;lanera joan behar izaten zuten. Ama Zegamatik Usurbila etorri zen neska; bere anai-arreba ugari Argentinara joan ziren lanera eta han geratu ziren.</p>

## 2. Familian musikak tradizio handia

- **Erref:** USU-022/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:07:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

Etxean animalia ugari zeuzkaten. Aita herriko postaria eta txistularia zen. Familian musikarako zaletasuna zeukan hainbatek. Musika ikasteko, Donostiara joaten ziren. Zer bide egiten zuten azaltzen du. Teodorok berak bakarrik ikasi izan du musika: pianoa eta txistua jotzen, hain zuzen ere.

## 3. Lasarteko automobil-karrera I

- **Erref:** USU-022/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

### Laburpena:

<p>Lasarten azken automobil-karrera jokatu zenean jaio zen bere anaia. Karrera hari buruz hitz egiten du: orduko autoak nolakoak ziren, orduko markak, ibilbidea...</p>

### Transkripzioa

- Eta gure Luis jayo huan Lasarten azkenengo antomoil karrera jokatu zan egunian: "veintidós de setiembre de 1934". Azkenengo antomoil karrera Lasarten jokatu zan. Lasartetik zirkuitu hortan Andoaindik barrena.

- Ze karrera zian hoiek?

- Antomoil karrerak, oan Formula Uno ta izaten dian hoitakuak. Tipo hortan, Formula Unoik ez zan ordun, baiño antomoillak tipo hoi bazien ordun, karrerako antomoillak.

Joxe: -Baiño Formula Uno huan, e.

- Geroxio Formula Uno izena hoi, geroxio.

Joxe: -Nuvolari eta danak.

- Bai, baiño Formula Unon izena ez zin artian. Formula Uno geo atea ziyen, horko baju-baju zeoik. Ordun antomoillak ze tipo esaten zien hairi, Mertzedesak irabazi zin ordun, azkeneko antomoil karrera, "veintidós de setiembre".

- Nolakuak izaten zian, kotxe haiek zer zian, kotxe normalak motor potentiakin edo?

- Normalak ez zien, hola pixkat karrerako-ta prepaatuk zian hola forma luziakin eta prepaatuta zian haik'e. Karrerako pepaatuk, noski. Hoi pentsa zazu: garai hartan kamiyua, oain bezelako kamiyuak ez zien, kamiyo danak, asfaltuak-eta zihero diferentiak, kurbak. Eta zirkuito, herritan pasatzen zan gaiñea, Lasarten herrin pasatzen zan ta. "Media 167,900 media", orduako. "El año 34, 167 de media, e!" in zuen bueltan. Ta kamiyua esaten dizut ba, kamiyo zaharrian, kamiyo lurra're dana zea, asfaltoa're ez behintzat oan bezelako leun hoitakua ta, oso diferencia zan ta. Hala're ze media iten zuen eta. Martxa haundiya ibiltzen zuen haik'e. Treintaikuatruan.

- Eta nundikan nora izaten zan bidia?

- Lasartetikan Oriya bitartian zan salidako tribuna.

- Oriyo?

- Oriya, Oriya, tartian hor. Pepe panaderuan etxian onduan. Eta handikan juten zian Andoain aldea. Andoain, Bazkardon buelta eman, handikan Urnitaa. Urnitatik barrena... (Urnitan kalia barrena pasata, e? Ez zean, pistan). Handikan Hernania. Hernanitik ateatzen zian Irubidea, Errekaldea, Hirubidea, eta Hirubidetikan Lasarte. Buelta hoi, hoi zan, hamazazpi kilometroko buelta dala uste dit.

- Ze egiten zan, trafikua moztu egun haietan?

- Moztu? Bueno! Kotxeik, Usurbillen'e bakarra zan ordun.

#### 4. Lasarteko automobil-karrera II

- **Erref:** USU-022/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:16:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

##### Laburpena:

<p>Jende asko etortzen zen karrera hura ikustera, nazioarteko karrera zen. Behin gertatutako istripuarekin esaera bat atera zuten.</p>

#### 5. Donostiako Kasinoaren diruari esker egindako lanak

- **Erref:** USU-022/010
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:16:46. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

### Laburpena:

Zaldi-karreratako sariak zenbatekoak izaten ziren aipatzen du. Donostiako Kasinoan lortzen zen diruarekin egin ziren hainbat obra.

#### Transkripzioa

-Ordun ze premiyo izaten zian?

-"Ni idea". Bat bakarra dakit. Zaldi-karrerak izaten zien ordun. Ta zaldi-karrerak "Premio Copa de San Sebastián" izaten da oain, "Copa de Oro, San Sebastián". Horren premiyua ordun izaten zala... Aurrena esango dizut ofizial batek zenbat irabazten zun ordun. Eguneko hiru pezta. Hiru pezta eguneko, zortzi ordu hiru pezta; jorna. Ta premiyua zaldi-karreretakua zan ordun maiorra "medio millón de pesetas". Oan konpara zazu "medio millón de pesetas" ordukua, oan izango litzake hogeita hamar milloi eo gehiyo igual konparaziyua. Ta ordun ba al dakizu zeatik zan hoi? Honbestaiñoko diruba hemen? Hemengo kamiyuak eta danak ordun Kursaalko zubiya, kasinua, hipodromuak, ordun ze diruakin in ziyen hoik? Donostiko zeakin, este, Kasinuakin. Kasinuak uzten zun diruakin. Kasinua honea etortzen dan jendia Frantzitikan ta dirua jokatzea Donostia.

Joxe: -Hik ezagutu al huban ba kasinua?

-Kursala. Kursalen.

Joxe: -Baiño martxan ez, ezta?

-Nola jungo giñun ba gu, treintaizinkuan sei urte, zazpi urte nizkin nik eta. Han zala bai, Kursalen. Kursal bai, gero ikusten genin, gero zinia're ikusten ahal izaten huan. Ta hango diruakin in zian lan hoik danak.

## 6. Europako lehenengo telefono automatikoa Donostian

- **Erref:** USU-022/012
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

### Laburpena:

Donostian egon zen Europako lehenengo telefono automatikoa. Donostian Askatasunaren hiribidean zegoen, eta gerora saldu egin zuten telefono hura. Telefono hark zer inguru hartzen zuen aipatzen du. Usurbilen telefono bat zegoen orduan. Lehen Usurbilen kotxe bakarria zegoen.

## 7. "Zenbat bataio klase daude?"

- **Erref:** USU-022/018
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:26:39. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

**Laburpena:**

<p>Komunioa egiteko, galdera batzuk erantzun behar izaten zituzten. Zenbat bataio klase egoten ziren galdetu zieten beraiei, eta mutil bakarrak jakin zuen hori ondo erantzuten. Hiru bataio klaseei buruzko azalpena ematen du.</p>

**8. Bataioaren ostean ama elizan sartu arte teilapean egon beharreko ohitura**

- **Erref:** USU-022/022
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:34:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

**Laburpena:**

<p>Bataioaren ostean, bazkaria izaten zen. Ama ohean egoten zen orduan, jaio eta berehala izaten baitzen bataioa. Elizan sartzea egin arte, amak teilla bat buruan zuela atera behar izaten zuen etxetik.</p>

**Transkripzioa**

-Bataiua eta gero egiten zan zeoze, bazkarin bat edo?

-Izaten zan bai, merienda eo bazkaiya eo zeoze.

-Eta ama jutun al zan horrea edo ama etxian?

-Ama oyian. Zeatikan bataiyatuta korrika batayatzea jutun [zien] hiltzeko beldurra, umia linboa jungo zala ta, korrika. Esaera badek...

Emaztea: -Geo elizan sartzia itten zan, elizan sartzia in arte teillatupetik amik ez zan ateatzen kalea. Nik hor badakat gaiñea zea bat, disko bat.

Baratzaa jutun da ama ta teilla hua burun hartuta jutun da.

-A bai, bai, ohiturak bazian, burun teilla hartu ta baratzaan ez dakit nun teilla hua jarri.

-Teilla hura jarri ez, behar zuna baratztatik hartu hua burun.

-Elizan bataiua, zea, familiya izan eta elizan sartzia iten zan ama sendatzen zanian edo, handikan zortzi egunea edo.

-Beatzi egunea.

-Ta ama oyian, zeatikan bataiyua seittun egun berian edo hurrungo egunian korrika batayatzea, umia hiltzeko bildurrez. Hil'e asko itten zien ordun, e. Umiak asko hiltzen zian zeatikan oingo bezelako adelantoik ez zan eta. Umia hiltzen baldin bazan linboa jungo zala ta, lehen esan deu ba linbuan asuntuoi. Ta korrika batayatzea.

**9. Bataiatu gabeko haurrak hiltzen zirenean**

- **Erref:** USU-022/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

<p>Umeak bataiatu aurretik hiltzen baziren, linbora joaten omen ziren. Linboa zer zen azaltzen du. Bataiatu gabeko umeentzat aparteko lekua egoten zen hilerrian.</p>

**10. Medikuntzan izandako aurrerapenak**

- **Erref:** USU-022/024
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:39:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena:**

Jaioberriak zer gaixotasunengatik hiltzen ziren aipatzen dute. Orain medikuntza asko aurreratu da; lehengo sendabide batzuk aipatzen ditu. Aitonak pneumonia izan zueneko kontakutzen du.

**11. Soldadutzan orkestan jotzeko aukera**

- **Erref:** USU-022/025
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:39:47. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

<p>Eskola bukatu zuenean, etxean aritu zen laguntzen 18 urtera arte. Gerora, "Abrasiveken" egin zuen lan eta handik soldadutzara joan zen. Soldadutzan orkestan aritu zen eta non jotzen zuten azaltzen du. Leku haietan zer jende joaten zen eta zer-nolako giroa egoten zen aipatzen du.</p>

**12. "Abrasiveken" egiten zen lana**

- **Erref:** USU-022/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Soldadutzara joan aurretik, "Abrasiveken" egin zuen lan. Hango lanaren prozesua azaltzen du.

### 13. Silikosiak eragindako kalteak

- **Erref:** USU-022/027
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:43:11. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

#### Laburpena:

"Abrasivasen" lanean aritu zen bitartean, hainbat lekutan aritu zen. Lantegi hartako lanaren eraginez, silikosia izaten zuten langileek. Gaur egun silikosia lan-istripuztat hartzen da; baina garai hartan ez. Silikosiaren aurkako segurtasun-neurririk ez zuten hartzen normalean.

### 14. Hauteskundeetan botoa sekretua eta pertsonala?

- **Erref:** USU-022/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak

#### Laburpena:

Gerra aurrean, hauteskundeak zirenean, ika-mikak egoten ziren. Garai hartan, nagusiak agintzen zion etxeko maizterrari nori eman behar zion botoa; bestela, etxetik kanpo bidaltzen zituen.

#### Transkripzioa

-Ez dakit republikako garaiyan izango zan edo lehenozan; zeatikan republikan aurretik zan "dictadura de Calvo Sotelo", "el año"... veinticincotikan treinta edo hola. Republika "treinta, treinta y uno" edo hola [irten] huan, haren aurretikan "dictadura de Calvo Sotelo". Ez dakit hua zan ala republikan zan. Botaziyuak zientian -orduan izango zian hangiak iki-makak-, holakotan "intereses", diputau zein atera ta. Hau diru pixkat zuenen kontua izango zan noski, gaiñontzian ez baiño. Baserritarrak, maixtarrak jeneralian izaten zian eta. Nausiyak esan zuk holakoi bota bihar diozu /bihyozu/.

-Eta harei bota behar?

-Botaziyua ez dakit sekretua edo nolakua izango zan. Usurbillen bazian bat edo bi nausiyak nahi zun diputaduak botua bota ez ziyelako, etxetik kanpoa, baserritik kanpoa. "Y a callar, y no pasa nada".

-Orduan botoa ez zan sekreto?

-Ez zan izango sekretua.

-Eta nolaz enteratzen zian?

-Tranpa ingo zuen eta hor.

### 15. Gerra hasi zen eguneko oroitzapenak

- **Erref:** USU-022/031

- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:51:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerraren hasiera](#)

#### **Laburpena:**

Gerra hasi zen eguna gogoan du. Herriko defentsa eratu zen orduan, eta errepublikaren alde azaldu ziren herritar batzuk.

#### **Transkripzioa**

-Gogoratzen al dezu zuk gerra hasi zanian nola izan zan?

-Gerra hasi zanian treintaiotxuan ni tanborra jotzen ari nintzan aittakin plazan. Aittak txistua ta ni tanborrakin. Ta "dieciocho julio" egun hortan plazan hor, ta hemen Patrinetik behetik gora grupo bat, ez zekit zein zian, pistolakin da!-da! bi tiro in eta "fuera grupos!" eiñez eta. Jente guztiya korrika, Gertrudiseneko portalea sartu giñun eta zean eta. Hua zan hasiera gerran. Orduako nunbait deklaratu zan gerra ta haik ez zekit zein izango zian, zein partidutakuak izango zian; "fuera grupos" eta zean etorri ta. Hasiera. Huaxe gooratzen zait.

Emaztea: -Treintaiseisian zala.

-Treintaseisian, bai. Nik zortzi urte, zazpi urte. Zazpi ta erdi nittun. Ta hasiera hua gootzen zait. Eta geo... Bai zeoze goatzen dia, hemen plazan kuadrilla juntatu ta Andatzaa, gerra zatorrela ta hemen nazionalistak eta milizianuak eta hola juntatu ta gerra iteko haien kontra, militarren kontra. Militarrak altxatu zian. Republika zeon eta militarrak altxatu zian republikan kontra ta. Geo republikan ze alde atea zian ba, ba hemen ordun zian, guardazibillak'e batzuk bai republikan alde. Klaro, republika baizan gobierno zea, natuala. Ta guardazibillak eta mikeletiak'e bai ta republikan alde atea hittuan. Ta hoik zian geo milizianuak zian "Frente Popular", eta hoik danak juntatu zian militarren kontra itteko. Baiña militarrak etorri zienian danak...

-Hemen elkartu zianian danak hori prestatzeko, zein zan horren buruzagiya hangua?

-Bazian ordun'e, baiño nei ez zaizkit gooratzen zein zien.

## **16. Herritarrek defentsa antolatu zutenekoa**

- **Erref:** USU-022/032
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:54:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

#### **Laburpena:**

Gerra hasi zenean, herritarrak elkartu egin ziren eta defentsa eratu zuten. Frontera nora joan ziren aipatzen du. Herrian bertan ez zen egon borrokarik, inguruko mendietan baizik. Zaurituak herrira ekartzen zituzten.

#### **Transkripzioa**

-Zer zian herriko batzuk, pixkat moituagoak hor?

-Bat badakit hemen plazan edo hola zea gaztiak, nunbait, gerra jun bihar zala ta. Ordun partidua hemen zan nazionalista, bat, Partido Nacionalista

Vasco. Ta bestia... Ez zekit beste partiduik, UGT ta, holako zeak bahittuan.

Emaztea: -UGT sindikatua.

-Bai, sindikatua zian, baiño geo partiduk'e bazian, CNT ta hoik danak sindikatuak zian, baiño. Behintzat kuadrilla gazte-jendia plazan juntatu dek kuadrilla ta. Ordun herriko jauntxuak izaten zienak, bat behintzat Joxe Olano zana, zaharra, aitta, e! "Ia mutillak, oain dek garaya eta! Ia mutillak!", eraiyak ematen eta "Ia mutillak!" eta. Baiña ez naiz hortaiño, handikan aurrea zein zien mandokuak eta hola ez zait goatzen.

-Gero haiek elkartu izanagatik eta zigortu zituzten gero bestiek, edo defentsa montatu eta listo?

-Bai, gerra, frentiak eta geo pixkat organizatu zian geo. Militarrak bai organizatuta zeuden baiño hemen geo pixkat organizatu zian. Frente Popular hoi, nazionalistak ziala, gero guardia zibil batzuk, mikeletiak eta pixkat organizatu zian hain kontrako. Bizkain hor zea "Cinturón de Hierro", denboa askon egon zien lutzan hor, batekin ta bestiakin. Hemen'e Bordaxoko gaiñian hemen'e egondu zian zeak bestien kontra. Hor Usaskuko gaiñian kaiñoi bat jarri ziyen eta. Zeatikan, Saldetxutikan kaiñoiyekin hemendik hara eta handikan honea nola bota... Gu hor egoten giñun begira, eta gaiñetik riiii! haren granada nola zatorren soiñua sentitzen gendun. Ta hortxe egoten giñan beira. Ta Usaskun zeon hortan bonba, eta bat hil zan gaiñea, eta bestia herittu in zuen hor.

-Zuei ordun ez zizuen bildurrik ematen gerra zanak edo?

-Tartian hor ibiltzen giñan. Baiño hemen bertan herrin ez zan izandu lutzik; hor gaiñian losuko gaiñeku hoi ta geo Donostia hartu zuen, militarrak sartu zian Donostia, eta Donostitikan hortikan Igeldon barrena-ta Oriyora sartu zian ta hemen ez zan izandu herrin. Hemen herrin ez.

Joxe: -Baiño herittuk ez al zittuen ekartzen honea, Mixerikordira.

-Bai, Usaskukuak ekarri ziyen, hildaku hoi ekarri ziyen. Eta herittua horra ekarri ziyen. Mixerikordira ekarri ziyen. Hor eon huan. Han niñun ni han. Ta gizon batek nola esan ziyon han herittubai: "Muchachos, esto es la guerra". Alegiya, jentiak ez baizun iruitzen hola gaiñea gerra zanic eta, ez zitzaion iruitzen gaiñea. Tiroka handik eta tiroka...

## 17. Gerran beldurra eta ihesa

- **Erref:** USU-022/034
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:54:48. **Bukatu:** 00:55:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

### Laburpena:

Herritik jende askok egin zuen ihes beldurratik. Gerran ezinikusiengatik hil zuten jende ugari.

### Transkripzioa

-Kanpoa jun zianak gerratik...

-Alde ein zuenak gerrangatian, bai, askok alde ein zuen, bai.

-Eta zergatik?

-Bildurrangatian! Zeatikan han zatozenak militarrak asko hiltzen zittuen ordun. Hemen Usurbillen zazpi edo zortzi badia hildakuak haik etorri zienian. Partidun pixkat destakatuk zienak edo. Koxme, ta Koxmek, hoik partidu nazionalistakuak zian. Koxmek'e nunbait mitiñen batian edo

destakatua nunbait zean batian eta... Han zatoztin militarrek ez zakiyen hue zein zan, hemen herrin bertan izaten zian hoik zeatu zittuenak. Nik zuri zorra dizut eta diruba hua ez pagatzeatikan likidatu're igual ordun e? Ordun libertadia izaten zan, ez baitzan ordun kontrolik izaten. Gerra garaiyan ez da kontrolik izaten.

## 18. Kanpaiak nazionalek herri bat hartzen zutenean

- **Erref:** USU-022/035
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:55:44. **Bukatu:** 00:58:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Gerra aurretik zeuden ezinikusiak gerran azaleratu ziren. Gerra garaian, apaizak kanpaiak jotzen zituen nazionalek herriren bat hartzen zutenean. Apaiz hura Francoren aldekoa zen eta gordeta egon zen hainbatetan. Jendea etsita zegoen jarrera horiek ikusita, beldurragatik.

### Transkripzioa

-Gerra baiño lehenago zorra zeukan horrek nahi zun gerra zorra kentzeko edo gerra hasi zanian, ya ke zorra kentzen deten horregatikan kenduko det gaiñetik. Lehenago zegon ezinikusia?

-Ez dizut entenditzen.

-Lehendikan zegon, gerra baiño lehenagotik zegon ezinikusiya?

-A, klaro!

-Gerra hasitakuan aprobetxatu...

-Klaro! Holakuak bai, asko. Hemen baiño, gaiñea, hemen baiño gehiyo Kastilla aldian asko herri koskor hoitan holakuak. Bai, bai.

-Zuek ba al zeneukaten notizirikan gerra nola zihoan hor Espaiñan beste lekutan? Nola zihoan ba al zenekiten? Ba Bartzelonan ze gertatzen zan edo Madrident hartu al zuten. Hori enteratzen ziñaten?

-Enteratzen zan nolabait'e. Kanpana-bueltak'e jotzen zittuen hola herrin bat hartzen zuenian. Hemen ordun gaiñea erretoria alderdi hartakua zan, hemen erretoria zea ordukua militar hoitakua zan, hain aldekoa. Erretoria, Don Julian. Beste aldekuak hemen zerenian oaindik militarrek etorri baiño lehen, erretore horren billa etorri zian hiltzeko, harrapatzea ta. Hemen elizan gaiñian hor ganbara do eta hor gordeta egona izan bihar zun. Ta geo nolabait alde egin eta Aian gordeta egona zan. Hua geo etorri zanian, militarrek sartu zanian etorri zan berriz erretoria honea, ta hua izaten zan diskurtsuk eta itten aiuntamentuko plazan, herrin bat hartzen zuenian eta. "Viva España, arriba España!". Erretoria bera, bai. Kanpana-bueltak jo ta. "Bai, zea hartu diyek /hartuyek/, Bartzelona hartu diyek" eta kanpana-bueltak jo ta. Erretori hoi bea zea diskurtsuk iten.

-Ta jendiak?

-Jendia bildurrak. Bildurrak, hil'e in baizittuen batzuk eta jendiak ez zun ezer esaten, eta bildurrak eoten zan jendia ta. Destakatzen baldin baziñan, leña.

Emaztea- Zubitakua, berriz, militarra huan.

-Hua bai, hua berez zan militarra hua.

-Gero gaiñea jendia iten da jarri, hala bihar dula irudittutzea. Jarri, ohittu itten zea bizimodu hartan eta hala izango dalakuan. Ohittu iten da eta jarri iten da. Etsi iten du jendiak.

## 19. Gerra garaiko irratia eta irratsaioak

- **Erref:** USU-022/036
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

<p>Gerra garaiko berriak irratia bidez entzuten zituzten: <em>Radio Galena</em> zen hura. Irrati haiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Gerora, <em>Radio Pirenaica</em> entzuten zuten.</p>

## 20. II. Mundu Gerraren oihartzunak

- **Erref:** USU-022/037
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:00:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

**Laburpena:**

II. Mundu Gerran, alemanak herrira etortzen ziren paseatzera eta zigarroak banatzen zituzten jendearen artean. Ipar haizea zenean, II. Mundu Gerrako bonba soinuak entzuten zituzten Usurbilen.

## 21. Hitlerri buruz entzuten zituztenak

- **Erref:** USU-022/039
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

**Laburpena:**

II. Mundu Gerrako kontuak irrati bidez entzuten zituzten. Komunikabideetan lan egiten zuen gizon batek kartzelatik Hitlerren egoerari buruz egin zuen analisia kontatzen du.

## 22. Gose garaian, dirua edukiz gero, estraperlora jo

- **Erref:** USU-022/040
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:03:34. **Bukatu:** 01:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Francoren garaian, gosea pasa zuten; dendatan ere ez zegoen janaririk. Gerora, estraperloa hasi zen; baina handik lortutako janaria erosteko, diru asko behar zen. Estraperloko prezioak aipatzen ditu. Baserriko jeneroari esker aurrera atera ziren beraiek; behin Usurbilgo markesa patata eske etorri zitzairen etxera.

## 23. Gernikako bonbardaketari buruz eman ziren bertsioak

- **Erref:** USU-023/002
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:00:09. **Bukatu:** 00:01:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

**Laburpena:**

<p>Egunean bertan izan zuten Gernikako bonbardaketaren berri irrati bidez. Eraso egin zutenak C&oacute;ndor Legioa izan zirela garbi jakin arte, bonbardaketari buruzko bertsio ugari atera ziren.</p>

**24. Dibisio Urdinera Usurbildik joandakoak**

- **Erref:** USU-023/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

<p>II. Mundu Gerran, Dibisio Urdina sortu zen eta Usurbildik zenbait boluntariok izena eman zuen hara joateko. Boluntario haien izenak aipatzen ditu. Garai hartan konformismo handia zegoen.</p>

**Transkripzioa**

Joxe: -Hi gogoratuko haiz "División Azul" hemendik jun zianak.  
-Bai. Hori kuarletean boluntariuak eskatu zittuen kuarletean. Ordun Agustin Illarramendi eta hoin garaiyan, ta apuntatu in zian jun nahi zunak. Eta hala hemendik eraman zuen Dibisiyua. Dibisiyua zenbat da, milla ta gehiyo soldau, dibisiyua... Konpañiya ehun, "batallón mil, División" igual hamar milla. Hamar milla, hamar bat milla lagun igual eramango zittuen, bai, dibisiyua. Batailloiya, eon pixkat. Konpañia "mil, batallón tresientos", eta dibisiyua "mil y pico", milla ta gehiyo soldadu izango zian.  
-España guztitikan?  
-Hemenguak bazian. Agustin Illarramendi, "Rusua", Zubitako hoi.  
Joxe: -Hemen'e bai "Rusua" Olarranekuakin ezkonduakua.  
-Baita, hori're bai. Hiru bazian hemenguak'e. Hoi're zerai laguntzeko, Alemaniayi laguntzeko. Soldauak bialdu zittun, bai.  
-Eta hoiek zer moduz ikusten zian, juten zianak edo.  
-Jendia esaten dizut ba ohittu itten zala. Franco etorri zanian harekin bihar zala ta. Jendia ohittu itten da. Regimenan zean. Zea bezela, lehenao esan deun bezela, dantza lotun ta galazten. Eta jendia ohittu itten zan halare. Ohittu. Hala bihar zula ta.

**25. Gurdien egitura lehen**

- **Erref:** USU-023/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

**Laburpena:**

Benitoren aita eta Pepita astoaren argazkia erakusten dute. Gurdien gurpilak lehen nolakoak izaten ziren azaltzen dute.

## 26. Gerrako berriak kanpai bidez ematen zituztenekoa

- **Erref:** USU-023/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gerra garaian, Francoren aldeko soldaduek herriren bat hartzen zutenean, kanpaien bidez jakinarazten zuten herrian; izan ere, ordurako nazionalak hartua zuten Usurbil. Gerraren eboluzioaz hitz egiten du. Komunistak apaizei segika aritzen ziren.

## 27. Kontrako bandoetan egon arren, lagun

- **Erref:** USU-023/009
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

Herriko Xapaterori buruz hitz egiten dute: ezkerrekoa zen eta oso lagun zuen eskuineko apaiz militarra; gerran elkarri lagundu zioten, biak bizirik ateratzeko. Elkar salbatzeko egindakoak kontatzen ditu Teodorok. Garai hartan, Oria "Rusia pequeña" zen.

## 28. Lagunaren salbokonduktoarekin aurrera

- **Erref:** USU-023/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Ibiltzeko baimenak (salbokonduktoak) zer ziren azaltzen du. Behin bi laguni ibiltzeko baimenaren ildoan gertatutako anekdota kontatzen du.

### Transkripzioa

- Salbakonduktua deitzen ziyen, pase bat bezela, dokumentu bat bezela zan, pase bat bezela. Konparaziyo batea, oain kamiyoa baldin bazuaz ta "documento de identidad" eskatzen dizue, baiña ordun, orduan ez zan dokumentuik identidadeik, ez gendun ezer ordun, ez zan. Karnetik eta ezer ez zan: ez "libro de familiaik" eta ezer'e. Salbakondukto hoi iten hasi zian herri batetik bestea hemen ibiltzeko, zeatikan edozein tokitan militarrek eta kontrolak egoten zian eta hoi, pasia hoi.

Bati behintzat, hau'de politta da. Lagun batek esan dik: "Ño! Iruna joan behar dit eta salbakondukuik ez zekat" eta beste lagunak esan diyo: "Nik emango dit!". Eman diyo salbakonduktua bestiak, bestiena, beria e? Ta bidian dijuala, geldittu due guardia zibillak o kontrolian, ta "¡Salvaconducto!", ta eman diyo ta "Oiga, esto está caducado", "¡Allá cuidaus! ¡No es mío!". Anttonio Pellok kontatzen zin hoi. "¡Esto está caducau!", "¡Allá cuidaus! ¡No es mío!".

- Earra.

- Eta, salbatu al zan? Segitu al zun? Segitu zun bidia o...?

- Ez dakit ze ingo ziyen. Ze ingo ziyen? Parre ingo ziyen, ze ingo ziyen ba, aizu. Geo, ze moduzko gizona dan'e antzeman eiten da, ta astapotron bat igual zan ordun, astapotro bastante bazan ordun, asko, gu aurretik geala. Ta ze ingo ziyen ba?

## 29. "Tabakorik ba al dek?"

- **Erref:** USU-023/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Usurbilgo bi laguni gertatutako anekdota barregarria kontatzen du: "Domingo, tabakorik ba al dek?".

### Transkripzioa

-Txistia bezela da hau're baiño, Domingo Herrerua, Martxielen aitta, ta Munoa, bi launak. Munoa hoi gaiñea elizatikan teillatutik erorita hil zan. Hargiña, igeltserua hoitakua ta, azkeneko teillak eta jartzen ai zala erorita, Torbeko hartara erori huan. Munoa, bai. Han Aranzadistroki apellidua. Domingo ta biyak badijuaz -ordun danak oiñez ibiltzen zan jendia. Bizikletan batzuk hasi zian baiño aurrena-aurrenian danak oiñez garai hartan-. Hemedik Agiña, antomoillak bakizu, ez zan antomoillik, Usurbillen bakarra zan, ta zenbat ibilliko zien kamiyuan. Agiña aldea badijuaz biyak [...] biyak oiñez eta Munoa horrek esan zio: "Domingo, tabakoik ba al dek?" eta "Bai". Ez eman, martxa. Handik pixkatea berriz'e, "Domingo, tabakoik ba al dek?". "Bai, bai, tabakua". Ez ematen, martxa. Handik puxkatea Lasao aldea jun dittuk eta, "Domingo, tabakoik ba al dek?" eta "Bai", "Emaidak ba", ta "Esan zak ba!"... Klaro, "Domingo, ba al dek?" eta "Bai" ta "Emaidak ba" ta "Esan zak ba! Ez det esaten!".

## 30. Abizen luzea izatearen abantailak

- **Erref:** USU-023/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Lanbideak » Polizia

### Laburpena:

Usurbilgo bi lagunek guardia zibilekin izandako anekdota barregarria kontatzen du.

#### Transkripzioa

-Beste baten biyak bizikletan. (Eta eon pixkat aber goatzen naizen... Bai, bizikletan). Eta Munoa hoi farolik gabe /pe/. Ta Domingok xeoxe bai baiño. Guardia zibillak: "Alto!", ta hor Agiña aldian dijoaztela geldittu dittuk eta. Multa in bihar, guardazibil hoi argiya pixkat in, illuna ta, eskribitzen eta. "Cómo se llama usted" eta "Joxe Antonio Aranzasistroki Ipurzulozarreta". "Cómo, cómo?" "Joxe Antonio Aranzasistroki Ipurzulozarreta". "Marche! Marche!". Eskribitzen ez zin jakingo. Eskribitzen ez zin jakingo. "Marche! Marche!", "Cómo, cómo?", "Jose Antonio Aranzasistroki Ipurtzulozarreta", "Marche! Marche!"

## 31. "Usurbil, ¿y esto qué es?"

- **Erref:** USU-023/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Polizia

### Laburpena:

Behin Iruñera zihoazela guardia zibilekin gertatutako anekdota kontatzen du.

#### Transkripzioa

- Oi! Neonei pasia dek zean, Irurtzunen, biyok Panplona guazela. Nere kotxe zahar horrekin bagiaztik, eta Irurtzunen estopa huan lehen, uain bariantia iña dao, baiña estopa. Ta estop hartan nere aurretik kotxe, matrikula ez zakit, Granada... Granada o zer zan. Ta ni haren atzetik. Estopan mantso-mantso pasa dek hua, ta ni're mantso-mantso ta aurrexeo ta "alto" guardia zibillak. "No ha hecho usted stop". "No, pero el de adelante también, como ha pasau despacio...", "Sí, pero aquello ha hecho un poco más que usted". Andaluza. "Escribe. ¿Cómo se llama usted?". Karneta eman ziot, ta eskribitzen hasi ta eskribitzen, ta geo Usurbil jartzen du ta "eto de Uzurbil qué eh?" guardia zibillak, pentsa zazu ze autoridade. "¿Ete Ujubil qué eh?". Zer nahi dezu esatia? Hor da autoridadia, zeak, guardia zibillak.

## 32. Lasartekoen kritikei Aginagan erantzundakoa

- **Erref:** USU-023/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:21:37. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

**Laburpena:**

Aginagan, garai batean, errebote-plaza zegoen; lurra buztinezkoa zen, eta han gertatutako anekdota kontatzen du.

**33. Txerria ez kentzeko egin beharrekoak**

- **Erref:** USU-023/019
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:23:03. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Gerra ostean, txerria hildakoan, guardia zibilek kendu egiten zuten. Beraien etxean, behin, txerria etxe barruan erre zuten ken ez ziezaieten. Estankoko emakumeak txerria hiltzeko eta guardia zibilek ez harrapatzeko egindakoa kontatzen du.

**34. Michelingo lanaren nondik norakoak**

- **Erref:** USU-023/021
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria

**Laburpena:**

<p>Soldadutzatik etorritakoan, 22 urte zituela, Teodoro Michelinen hasi zen lanean eta han ibili zen erretiroa hartu zuen arte. Bere zeregina zein zen azaltzen du. 47 urte kotizatu zituen.</p>

**35. Soltean dantzatzeko piezekin gehiago nekatu soinu-jotzailea**

- **Erref:** USU-023/023
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena:**

Erromerietan, soinua jotzen aritzen zen Teodoro. Ezkontzetan ere jotzen zuen. Dantza soltea egiteko piezak jotzeak gehiago nekatzen zuen; behin, Nuarbera

joan zenean, arratsalde osoa solteko piezak jotzen eman zuen. Gerora, jazz-bandarekin hasi zen jotzen.

### 36. Motorrek eta bizikletek ekarritako aldaketak

- **Erref:** USU-023/024
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

#### Laburpena:

Erromerietara motorrez joaten zen. Garai batean, bizikleta izatea abantaila handia zen. Jendea alde batetik bestera joateko, zer garraibidetan ibiltzen zen aipatzen du.

### 37. Lan-baldintzak pixkanaka hobetzen

- **Erref:** USU-023/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

#### Laburpena:

Lehen 48 lanorduko asteak izaten zituzten; pixkanaka, lan-baldintzak hobetzen joan ziren. Soinua jotzera joateko, baimena eskatu behar izaten zuen Teodorok lantegian.

### 38. Motorreko gidabaimena ateratzeko

- **Erref:** USU-023/027
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

#### Laburpena:

Motorra bere diruarekin erosi zuen Teodorok. Motorreko gidabaimena ateratzea orain baino errazagoa zen. Joxeren aitak Zubietako apaizarekin ikasi zuen motorrean ibiltzen.

### 39. Gidabaimena ateratzeko, 3 prezio

- **Erref:** USU-023/028
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:38:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

**Laburpena:**

Lasarteko autoeskola batean 3 prezio klase zeuden; bakoitzaren barruan zer sartzen zen azaltzen du.

**40. Motorreko gidabaimena ateratakoan, irteera Lizarrara**

- **Erref:** USU-023/030
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

**Laburpena:**

Motorreko gidabaimena atera zuenean, Lizarrara joan ziren 3 motorretan. Irteera hartan izandako komeriak aipatzen ditu. Ia motorra lapurtu zioten.

**41. Soinu-jotzaileak: "infernuko hauspoak"**

- **Erref:** USU-023/031
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:43:26. **Bukatu:** 00:45:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena:**

Lehen soinu-jotzaileek ospe ona zeukaten; batzuek, ordea, "infernuko hauspoa" deitzen zieten. Leku batzuetan solteko piezak jotzera derrigortzen zuten Teodoro.

**42. Aldare nagusian ezkontzen utzi ez zien azken bikotea**

- **Erref:** USU-023/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

Nobiotan Usurbildik kanpora egin zuten lehenengo irteeran merkantziako furgoneta batean joan ziren. Ezkontzean, ez zieten utzi aldare nagusian ezkontzen, kongregaziotik bidali baitzuten emaztea. Beraiek izan ziren azken bikotea zigor hori bete behar izan zutenak.

**Transkripzioa**

Emaztea: -[...] Aurreneko salida biyok Donostia in giñuna merkantzian jun giñun gaiñea.

Joxe: -Merkanzian?

Emaztea: -Merkantziko kotxiak, dana betia, ta bi kotxe edo merkantzikuak. Furgoiyan.

-Furgoiyan sartuta, bai. Ekipajiak eramaten dian furgoyian sartuta jun giñan, bai. Hoi goatzen zat hoi.

-Romantiko ziharo orduan. Eta gero ezkontzeko nun ezkondu ziñaten?

-Hemen.

Emaztea: -Usurbillen San Josen altarian, Hijas de Maria ez giñalako...

-Aldare nagusin ez zuen uzten dantza eindakuaidi. Mutillak ez zittuen kastigatzen, neskak kastigatzen zittuen, ta horrek dantza in zulako kongregaziyotik bialdu zuen eta gero aldare nagusin ez ziyen utzi. Ta San Josen aldarian ezkondu.

-Eta azalpenik eman al zizuen?

-Usurbillen pareja bat bada, elizan ezkontzen utzi ez ziyona pareja bat.

-Emaztea: -Maritxu Beraetxe.

-Ez. Pilar Urkia, bakarrik.

Emaztea: -Maritxu Beraetxek berak ekarri zun frailia ta haek elizan in zuen, bai.

-Pilar Urkia bakarrik. Elizan sankristin ezkondu ta geo eliza etorri meza.

Emaztea: -Eta gu giñan hemen azkeneko beltzez eta san Josen altarian azken ezkondu giñanak, Nieves ta biyok.

-Bai, dantzan indakuak. Ordun puskatu zan zea, kastigua. Indultua ordun izandu zan. Gu azkenekuak. Eta geo hurrenguak Rosario Urkia. Ya libre.

Aldare nagusin. Gu San Josenian. Gertrudisek esaten zitxon "earki jarriko dizut nik politta San Josen aldaria, ez zaitez teta kejatu". Gertrudis ordun zan seroria.

### 43. Kaxianori etengailua non zegoen esan ziotenekoa

- **Erref:** USU-023/037
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

#### Laburpena:

Kaxianorekin gertatutako anekdota kontatzen du.

#### Transkripzioa

Joxe: -Hik ezautu al hun bertsotan zea, Idiazabalko hua? Xepai?

-Xepai, bai.

Joxe -Hua ezagutu al huan hik?

-Xepai? Bai, bai.

-Ze mouzkua zan hua?

-Ona bertsotan. Elektriho hoitakua. Bai, bai, baiño kriston abailla zuna, bai.

Ona bertsotan. Kaxianokin..., Kaxioano aitzera ba al dezu?

-Bai.

-Zein zan Kaxiano?

-Itsua.

-Hoi da. Xepai horrek taberna zun Idiazabalen, eta oandikan han segitzen du tabernak. Oain gaiñea taberna bastante lujoko, bastante dottore jarrita dao taberna hua. Kaxioano hoi eaman du tabernan soiñuba jotzeko, ta soiñuba jotzen eguna pasau da` eta gauian kuartoa lagundu, bakizu, itsua.

"Bueno, lagunduko dit kuartoa". Kuartoa jun dek eta. "Bueno, Kaxiano, argiyen llabia hemen dakak, e!" Ta "jakingo dek ba nik horren biharrik ez dedala". Ta, mekauden, ordun konturatu bertsolariya, ño!, hanka sartu dit. Bai ba, itsuai "argiyen llabia hemen dakak" itsuai, batere zeatu gabe /be/. "Aizak, nik horren biharrik ez deala jakingo dek ba" itsuak. "Mekauden, ez zaiyok iñoi esan holako..." bertsolai horrek, "ez zaiok iñoi esan, zeatikan lotsakizuna dek neretzako ta". Hurrengo egunian jeiki dek Kaxiano ta herri guztiyak ba omen zitxakin! Herri guztiyak ba omen zitxakin, beak kontatu.

#### 44. Lehengo bertsolaritza nahiago

- **Erref:** USU-023/039
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:54:26. **Bukatu:** 00:55:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

##### Laburpena:

Lehen bertsolariek zer gai tratatzen zituzten azaltzen du. Askoz nahiago du orduko estiloa; bertsolarien artean sortzen zituzten gaiak.

##### Transkripzioa

-Lehen bertsolariek zer gaietaz hitz egiten zuten?

-Oan bezela gairik ez zayen jartzen.

-Libria izaten zan?

-Beak teman bat hartzen zuen. Asko, behintzat, hola Francon garaiyan politika asko sartzen zan, jendiai asko gustatzen zitzaion hoi, politika pixkat sartzen zuen. Bertsolarik kastigatuk'e bazian ordun. Kastigatuk'e. Multak-eta kartzelara're baten bat eramana ta. Bazien. Politikan sartzen zuen eta nunbait jendiai gustatzen zitzaion pixkat saltsa hoi.

-Emaztea: -Eta geo alkarren aitzakik zeaten'e bai.

-Geo alkarri bere bizimouan zipoka ta. Geo andria ta andregaia ta, ez dakit zer eta. Temak berak sortzen zittuen, askoz'e polittaua zan gaiñea hua, askoz'e polittaua, bertsolarik ordun aitzen zian bezela. Oango zer hoik tema jarrita; tema zaillak jartzen dixkie gaiñea askotan eta. Hoi, hua pentsatzeko ta. Meritua gehiyo izango du oangu horrek baiño lehengua askoz'e polittaua huan.

Joxe -Frantses hua zein zan?

-Beren artian sortzen zittuen temak.

-Emaztea: -Xalbador. Ta bestia zea, Mattin. Earrak zian bai haik'e. Lenguan telebisian eman zuen Xalbadorren paisajia, etxia ta danak eman zittuen.

#### 45. 'Lazkao Txiki' artista zen txisteak kontatzen

- **Erref:** USU-023/041
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:57:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

**Laburpena:**

<p><em>Lazkao Txiki</em> artista zen txistek kontaktzen. Haren txiste batzuk kontaktzen ditu.</p>

**Transkripzioa**

- Txistiak kontaktzen izugarriya zea zan, Lazkao Txiki. Joo, Lazkao Txiki zan, artista zan Lazkao Txiki. Batian Martutenen festetan arreba Martutenen biziitzen zan, eta festetan han junda batian bersotan baiño gustoago eondu giñan ordubete batian haren txistiak eta haren zeak. Bueno! Ona! Lazkao Txiki espeziala zan. Kamiyuan geldittu due guardia zibillak eta: "Usted no ha hecho stop" eta...

Joxe: -"No ha visto usted el stop?" eta: "sí he visto el stop, pero a vosotros no".

- Ta beste batian, "usted no ha hecho stop, le voy a poner una multa". "Y usted cómo me ha visto?", "Ese de arriba", "El de arriba quién?" -alegiya, el de arriba, jainkuak-. "No, no, el helicóptero que anda ahí arriba". Beste batian amon batena, baiño izugarri earki kontatu zun harek, Barranka aldeko amona. Barranka zea da, Irurtzun eta hor goiko zea hoi, Barranka. Hango amonen baten kontua ta, plastikoko ontzik atea zienian. Ta nunbait peria jun eta erosi dittu, nunbait ikusi dittu plastikoko ontzi hoik, eta harek kontaktzen zun bezela ta. Gustoa etxea ta etxea jun eta eakusten, a ze gauza ekarri dittuan eta gauzak eta holako gauzak arin-ariñak, eta gaiñea ez dia puskatzen, eta sekulako ixtorik. Jarri dik, baburrinak jarri dik eta jarri dixkik egosten plastikoko ontziya surtan. Baiño harek kontaktzen zun bezela. Gero plastiko bakizu, surtan raaa baburrinak eta dana surta eta.

- Dana desegin.

- Baiño izugarri earki kontaktzen zizkin, earra huan Lazkao Txiki.

**46. 'Lazkao Txiki'ren txistea**

- **Erref:** USU-023/043
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:57:58. **Bukatu:** 00:58:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p><em>Lazkao Txiki</em>ren txiste bat kontaktzen du.</p>

**Transkripzioa**

- Beste bat'e bazun, kojua. Mattin bertsolaiya, Xalbadorren laguna, frantsesa, Mattin. Ta Lazkao Txiki, biyak txikik. Ta kojo bat ikusi die pasatzen eta: "Ño! Horrek, motxa dek ba hori're, horrek hanka bat motza zakak" eta: "Bai, horrek bat, guk biyak". Lazkao Txikik: "Horrek sikira bat dik motxa, guk biyak".

Joxe -Ttikik zialako.

- Onak bazixkin.

- Ona, ona, ona.

**47. Bertsolariak adar-jotzaileak lehen ere**

- **Erref:** USU-023/045

- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:58:54. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

#### Laburpena:

Bertsolariak tabernatan ere egiten zituzten bertso-saioak eta adarra jotzen aritzen ziren bertan zeudenei. San Juan eskeko bertsoa abesten dute. Kaxianori ziria sartu zioteneko anekdota kontatzen du.

#### Transkripzioa

-Bertsolariak zebiltzanian, begira zeudenekin ere sartzen zian edo, bazilatzen zien hor zeudenei, edo beraien artian bakarrikan?

Emaztea: -Neska gazten batzuk bazian aurrekaldian igual.

-Bai, publikuakin eta pixka bat bai. Ez zian hortaaño zeatzen. Geo tabernan itten zittuen saio haundik. Atsaldian eta geo tabernan, afaltzen'e bertan igual geatzen zien eta. Kriston saio, tabernan itten zuen eta. Ordun bai jendiakin eta. Geo jendiakin asko sartzen zien, etxeko familiyakin eta sartzen zian, San Juan eskian eta ibiltzen zienian. Famili guztiko danaidi bertsua. Bat eamaten zuen aldamenian esaten: "hau holako, aittak holako izena dik, amak holako izena dik", eta bertsua harekin botatzen ziyon. Joxe: -"Alaba soltera dik".

-Bai. San Juan-esketarako ta ordun bai, ordun zea... Gaiñontzian bertsolaik jendiakin ez zan hortaaño zeatzen.

Joxe: -Hoi ba, oain esaten deuna, San Juan hemen Kalexarren, eta hoik ekartzen zittuen bertsolaiyak gabian eskian ibiltzeko. Eta ordun hau da koplariya. Ta nik esaten diot: "Hi, etxe hontako nausiyak hau dik izena, etxekoandriak hau dik izena, ta alaba badiye soltera daona". Ta ordun koplatzen zittun danak.

-San Juan eskia noiz egiten zan, San Juan egunian edo?

-Joxe: -San Juan bezperan.

-Bertsotara junda erretore-etxea jun dia ta limosnik ez, atek iriki ez eta, hala bota emen ziyola bertsolaiyak: "Kura parroko mondongo/ hik ez dek asko emango/ hik emandako dirubarekin ez diyau asko edango".

Emaztea: -Hoi gaizki, propina txikiya ematen zuenai.

-Kaxianona bestia. Bi itsuk emen zeen, Kaxiano ta beste bat, ta batzun batzuk etorri dia ta "hemen gizonak gizajuak, emaiyok-emaiyok propina horri" ta zean ta. "Aiba!". Ta Kaxianok bestiai: "Hi, zenbat eman dik?", eta "Nei ez zidak /etzak/eman, hiri emango zin", eta "nei're ez zidak /etzak/ eman". Iñoi eman ez. Eta ondo geratzeatikan "aiba propina!" ta. Ta biyak itsuk. Eta "zenbat eman dik" eta "nei ez zidak eman". "Hiri ez dikela eman? Nei're ez zidak ba eman". Iñoi eman ez.

-Ziriya earki sartuta.

#### 48. Tabernan ez ordaintzeagatik egindakoak

- **Erref:** USU-024/002
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:00:03. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Zarautzen taberna batean ez ordaintzeagatik gertatutako anekdota kontatzen du Joxek; Teodorok <em>Txirrita</em>ren anekdota kontatzen du, tabernan ez ordaintzeko egin zuena.</p>

**49. Errioxan komunera joateko "¡al corral, hija, al corral!"**

- **Erref:** USU-024/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena:**

Errioxara 1959an joan zirenean, etxe batean oraindik ez zegoen ur-korronterik. Behin Errioxan gizon bat ezagutu zuten, oso harro zegoena herriko lehenengo komuna bere etxekoa zelako. Etxe hartan oso ondo eman zieten jaten.

**50. Soldadutzako txistea**

- **Erref:** USU-024/009
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Soldadutzako txistea kontatzen du.

**51. Eztei-bidaiako txistea**

- **Erref:** USU-024/011
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:07. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Txiste bat kontatzen du.

## 52. Tabakoaren txistea

- **Erref:** USU-024/013
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Txiste bat kontatzen du.

## 53. Harakinari zorra itzultzeko egin beharrekoa

- **Erref:** USU-024/015
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

Usurbilgo harakinari zorra ordaintzeko gizon batek izandako gorabeherak kontatzen ditu.

## 54. Gehiketak egiten trebea

- **Erref:** USU-024/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:30:56. **Bukatu:** 00:32:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

Teodoro ura kobratzen ibiltzen zen, hasieran aitari laguntzen eta gerora bera bakarrik. Kontu haiek nola eramaten zituen azaltzen du. Gehiketak egiten trebezia hartu zuen horrela.

## 55. Eibarko euskarari buruzko iritzia

- **Erref:** USU-024/023
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:39:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

### Laburpena:

Lehen Eibarko euskarari barre egiten zitzaion. Orduko hitzaldi bat gogoan du.

## 56. Lehen orain baino euskara garbiagoa

- **Erref:** USU-024/025
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

### Laburpena:

<p>Lehen orain baino garbiago hitz egiten zen. <em>Basarri</em>k esan zuen Usurbilen erabiltzen zirela ondoen aditzak. Euskara hutsean idatzitako bertso batzuk abesten ditu.</p>

## 57. Euskarari buruzko iritziak

- **Erref:** USU-024/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:47:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

### Laburpena:

Euskarari buruzko iritziak: euskara dakigunok zaindu behar dugu. Artze eta don Ambrosioren aipamenak egiten ditu.

## 58. "El fresco general y los socavones"

- **Erref:** USU-024/030
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

<p>Francori buruz "fresco general" esan zuen Iglesiasek <em>Codorniz</em> egunkarian, eta kartzelara eraman zuten horregatik. Beste pare bat aldiz ere eraman zuten kartzelara egunkarian idatzitakoagatik.</p>

## 59. Eta tren non da?

- **Erref:** USU-024/032
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:52:43. **Bukatu:** 00:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Behin eskolan eskulan bat egin behar zuteneko anekdota kontatzen du Teodorok.

**Transkripzioa**

- Eskolan, Batista Armotei ezautu huan hik?  
- Bai.  
- Eskolan ta maixuak esan diye dibujan "In zazue trena ta trenbidia, ta trena, ta tunela ta in zazue". Ta ahal duen bezela, ta Batista Armoteiko horrek trenbidia in dik, ta tunela. Ta "Bueno, ¿ya está?" maixuak, "¿y qué?" eraman due danak: "Bien, bien". Batista horrek eraman dik eta erakutsi zioz eta "Sí, la vía y el túnel... y ¿dónde está el tren?", "¡acaba de entrar en el túnel!"

**60. Familia bat etxetik bidali zuen epailea**

- **Erref:** USU-024/034
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:56:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena:**

Gerra garaian, epaile batek familia bat etxetik bidali zuen, errexisatutako etxe batean bizitzen ari zirelako. Familia kalean utzi zuen. Epaileak umetatik ezagutzen zuen familiako aita.

**61. Batzuek salatu eta besteak fusilatu**

- **Erref:** USU-024/037
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:58:57. **Bukatu:** 01:00:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena:**

Gerra garaian fusilatu zituzten gazteak izendatzen dituzte. Herriko jendeak salatu zituen gazte haiek.

**62. Zubietako apaizaren haserrea eta indarra**

- **Erref:** USU-024/039
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Zubietako apaizak Teodorori eskatu zion berekin batera ibiliko zen txistularia izateko. Teodorok ezetz esan zion eta apaiza asko haserretu zen. Azkenean, adiskidetu egin ziren. Beste behin, gizon batek lan-istripua izan zuen behatzean; Zubietako apaizari esker, esandakoa baino indemnezazio handiagoa eman zioten: bikoitza. Apaiz hura teniente-koronel zen.

**63. Zubietako apaiza eta bizikleta**

- **Erref:** USU-024/040
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:03:55. **Bukatu:** 01:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena:**

Zubietako apaiza bizikletaz etortzen zen meza nagusia ematera. Bizikleta konpontzeko behin izandako anekdota kontatzen du.

**64. Eroetxetik aholkuak ematen**

- **Erref:** USU-024/042
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:05:28. **Bukatu:** 01:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

**Laburpena:**

Gizon bati Santa Ageda eroetxean autoa geratu eta torloju bat erori zitzaion. Eroetxetik autoa konpontzeko aholkua eman zioteneko anekdota kontatzen du.

**65. Santa Agedako anekdotak**

- **Erref:** USU-024/044
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:06:59. **Bukatu:** 01:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

**Laburpena:**

Santa Ageda eroetxeko anekdota eta txistea kontatzen ditu.

## 66. "Saltaparapetosena" ondorioak

- **Erref:** USU-024/050
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:14:58. **Bukatu:** 01:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

Lehen ez zen drogarik; bai, ordea, alkohola, "saltaparapetosena". Behin herrian gazteek egindako bihurrikeria kontatzen du.

## 67. Zuhaitzaren eta harriaren anekdota

- **Erref:** USU-024/051
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:17:03. **Bukatu:** 01:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

Herriko gazte batzuek zuhaitzarekin eta harriarekin egindako bihurrikeria kontatzen du. Umore sanoa zen hura, harriaren jabeak ez zuen gaizki hartu.

## 68. Bihurrikeria egin izanaren poza

- **Erref:** USU-024/052
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:18:40. **Bukatu:** 01:19:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Herriko mutil batek eskorga meta puntan jarri zuen; gero, jaitsi egin behar izan zuen. Baina pozik.

## 69. Iltzezko botak kendu soinurik ez egiteko

- **Erref:** USU-024/054
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:20:35. **Bukatu:** 01:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Gerra ostean, gose garaia etorri zen. Janaria ezkutuan eraman behar izaten zuten, kendu ez ziezaieten. Mutil batek iltzezko botak kendu zituen, soinua egin ez zezan bidean. Bota haiek nolakoak ziren azaltzen du.

---

Aranburu Otaegi, Teodoro | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com